

INTRODUCCIÓN

Este número de la revista LAN HARREMANAK es uno de los productos derivados del proyecto de investigación «Cohesión Social Activa» (CSO2015-70085-R). Este proyecto, pretendía profundizar en el análisis vinculado de dos procesos que han transformado ya profundamente, y lo harán aún más en el próximo futuro, tanto el empleo como las condiciones generales para la integración socioeconómica de las personas en sociedades como la nuestra.

En general, las propuestas de modificación de los regímenes de bienestar europeos orientadas por la filosofía del *welfare-to-work* no tienen suficientemente en cuenta los cambios que a lo largo de las últimas tres décadas han experimentado los mercados de trabajo en la Unión Europea. Se sigue afirmando la fórmula de que «la creación de empleo es la mejor política social», sin tomar en consideración el hecho de que la transformación de la norma social de empleo característica del mercado de trabajo europeo (keynesiana-fordista) ha erosionado la capacidad integradora que se supone al trabajo asalariado.

El objetivo central del proyecto consistía en vincular dos análisis generalmente yuxtapuestos o, cuando menos, no suficientemente relacionados: el análisis de las transformaciones en los regímenes de bienestar europeos, que apuntan a una convergencia creciente hacia un modelo de *workfare* en el que la activación para el empleo se vuelve central, y el análisis de las transformaciones en la norma social de empleo (de la estabilidad a la flexibilidad). Ni la protección social debería descualificar o desincentivar ni el empleo desproteger de derechos sociales básicos. Integrar efectivamente ambas perspectivas, la activadora y la protectora, significa tomarse en serio el reto al que nos enfrentamos. Rompiendo incluso con viejas distinciones entre políticas activas y pasivas, para asumir que no hay sociedad activa que no sea, a la vez, una sociedad cohesionada.

El primer artículo, firmado por Elsa Santamaría López y Xavier Orteu Guiu, somete a revisión las carencias de las políticas activas de empleo focalizadas exclusivamente en la empleabilidad, que lejos de mejorar de manera generalizada

la inclusión laboral produce muchas veces exclusión, desigualdad, desprotección y precariedad. Para evitar estas consecuencias perversas, la autora y el autor proponen una aproximación más compleja, que incorpore a las políticas activas de empleo dimensiones hoy apenas presentes como son el fortalecimiento del sentido de pertenencia y el énfasis en la utilidad social de las actividades a las que se incorporen las personas en procesos de orientación y formación sociolaboral.

El segundo artículo, elaborado por Francisco Javier Arrieta Idiákez, aborda una de las cuestiones que de manera más clara explican la degradación del empleo: el abuso de la temporalidad en los procesos de contratación y organización del trabajo en las Administraciones públicas. Aunque el sector público funciona, en principio, al margen de los factores que, según la literatura dominante, explican la flexibilización precarizadora del empleo (globalización y desconcentración productiva, competencia internacional mediante la devaluación salarial), lo cierto es que se trata de un sector laboral fuertemente temporalizado. El artículo busca explicar las razones de esta situación, así como la existencia o no de mecanismos legales que pudieran limitar la temporalidad abusiva.

En el tercer artículo, Elisa Sierra Hernáiz analiza los problemas que presenta la aplicación del artículo 50 del estatuto de los Trabajadores, que regula la extinción voluntaria del contrato de trabajo, en particular en lo que se refiere al menoscabo de la dignidad de la persona trabajadora como causa justa para solicitar dicha extinción. Estos problemas tienen que ver, fundamentalmente, con la relativa indeterminación jurídica del concepto de «dignidad del trabajador», lo que conlleva un tratamiento individualizado de cada caso denunciado, así como que la carga de la prueba recaiga sobre la persona denunciante. Sin embargo, la autora considera que esta situación cambia sustancialmente cuando el ataque a la dignidad afecte a derechos fundamentales como en los casos de acoso moral o de incumplimiento por parte de la empresa de la garantía de indemnidad, es decir, el derecho de toda persona trabajadora no ser objeto de represalias por reclamar o ejercitar sus derechos laborales.

En el cuarto artículo, Kamilla Teixeira Silva y Ainhoa Saitua-Iribar se aproximan a las políticas de conciliación de la vida laboral, personal y familiar, una cuestión sumamente sensible cuando de reflexionar sobre las tensiones entre empleo y cohesión social se trata. En concreto, las autoras analizan la información que al respecto han comunicado cuatro empresas españolas, en el marco de la directiva 2014/95/UE, que exige a las grandes empresas la presentación de un *Estado de Información No financiera* que recoja las políticas y medidas relacionadas con aspectos sociales implementadas por estas, entre ellas las relativas a la conciliación familiar.

María del Carmen López Aniorte profundiza en su artículo, el número cinco de este ejemplar, en la persistencia de la desigualdad de género en materia de protección social, y ello a pesar de la obligación legal de incorporar la pers-

pectiva de género en el diseño y aplicación de toda la normativa de seguridad social. Esta desigualdad flagrante se manifiesta de manera particularmente hiriente en el diferente acceso de mujeres y de hombres al disfrute de la pensión de jubilación, que lleva a la autora a señalar una recurrente vulneración del principio de igualdad de trato y de oportunidades en las sucesivas reformas del sistema de pensiones.

En el sexto artículo, Francisco Vigo Serralvo, estudia una cuestión eminentemente aplicada, centrada en cuál es la forma de acreditar el carácter extrasalarial de los importes abonados en concepto de dietas, para poder deducirlos de la cotización a la Seguridad Social. Se trata de una cuestión disputada en el seno de nuestra doctrina judicial contencioso-administrativa, con diferentes consecuencias para las empresas y las personas trabajadoras en función de que prime un criterio u otro.

Cuando este número de LAN HARREMANAK estaba en proceso de elaboración nos sorprendió la pandemia de la COVID-19. Esta situación explica que varios de los artículos recibidos se aproximen a sus efectos sobre el ámbito laboral, desde planteamientos muy diversos.

En un oportuno artículo, el séptimo de este número, Henar Álvarez Cuesta reflexiona sobre la posibilidad, más que cierta, de que el recurso al teletrabajo, adoptado como medida de emergencia para responder al confinamiento derivado del estado de alarma, se convierta en una opción normalizada en el futuro próximo. El autor analiza las carencias que presenta la regulación actual del trabajo a distancia, así como la manera de evitar que deriven en nuevas formas de desprotección de las personas teletrabajadoras.

En el mismo sentido, Rubén López Fernández analiza en su artículo el funcionamiento de los servicios de prevención de riesgos laborales ante el impacto del coronavirus, repasando las principales medidas normativas adoptadas a este respecto, así como el tratamiento dispensado a las trabajadoras y trabajadores especialmente sensibles a la exposición por el virus.

El noveno artículo, firmado por Mirentxu Marín Malo, aborda algunas de las problemáticas asociadas a la realización de pruebas de carácter obligatorio para la detección de sintomatología compatible con la COVID-19 en el entorno laboral, en particular la posibilidad de que tales pruebas, dirigidas a proteger la seguridad y salud en el trabajo, puedan colisionar con el derecho a la intimidad y a la protección de los datos personales.

En el siguiente artículo, el décimo de los que componen este número, Emmanuel López Pérez nos traslada a México y nos propone un análisis de las nuevas formas de trabajo y protección social relacionadas con la denominada industria 4.0, caracterizada por una fuerte presencia de la tecnología, y su relación con la pandemia generada por el virus COVID-19.

Por último, el artículo de Álvaro San Martín Rodríguez se aproxima a un problema no muy estudiado, cual es el abuso de sustancias en el ámbito laboral, con sus efectos tanto sobre la actividad de las empresas (absentismo, aumento de los costes médicos, disminución de la productividad) como para las personas trabajadoras (problemas de salud, sanciones, despidos o discapacidades). El autor analiza los sistemas regulatorios orientados a afrontar esta problemática en Estados Unidos y en España que, en su opinión, no están consiguiendo garantizar una gestión adecuada de la misma.

Leioa, 30 de junio de 2020

Imanol Zubero Beaskoetxea

Grupo de investigación CIVERSITY Ikerkuntza taldea

<http://civersity.net/>

SARRERA

LAN HARREMANAK aldizkariaren ale hau «Gizarte Kohesio Aktiboa» (CSO2015-70085-R) izeneko ikerketa-proiektuaren emaitzetako bat da. Proiektu horrek bi prozesurekin zerikusia duten analisisan sakontzea du xede; izan ere, prozesu horiek sakonean eraldatu dituzte, eta are gehiago eraldatuko dituzte etorkizun hurbilean, bai enplegua eta bai pertsonak gurea bezalako gizar-teetan arlo sozioekonomikoan integratzeko baldintza orokorrak.

Oro har, *welfare-to-work* filosofia oinarri duten Europako ongizate-erregimenak aldatzeko proposamenek ez dituzte behar beste kontuan hartzen Europar Batasuneko lan-merkatuetan azken hiru hamarkadetan izandako aldaketak. Oraindik ere «gizarte-politikarik hoberena enplegua sortzea da» tesia formulatzen da, kontuan hartu gabe Europako lan-merkatuaren bereizgarri den enpleguaren arau soziala (keynestar-fordistarra) aldatzeak indargabetu egin duela sol-datapeko lanak beharko lukeen gaitasun integratzailea.

Proiektuaren helburu nagusia bi analisi lotzea da, normalean elkarren kontra ageri direnak, edo, behintzat, ez oso lotuta. Hauek dira bi analisi horiek: Europako ongizate-erregimenetan izandako aldaketak (enplegurako aktibazioa ardatz duen *workfare* eredurantz egiteko gero eta joera handiagoa adierazten dute aldaketa horiek) eta enpleguaren arau sozialean izandako aldaketak (egonkortasunetik malgutasunerantz). Gizarte-babesak ez luke deskualifikatu edo estimulua kendu behar, eta enpleguak ez luke oinarrizko eskubide sozialik gabe utzi behar. Bi ikuspegi horiek, aktibatzailea eta babeslea, benetan integratzeak erronka serio-tasunez hartzea esan nahi du. Politika aktiboen eta pasiboen arteko garai bateko bereizketak alde batera utzi behar dira, onartuko badugu ez dagoela gizarte aktiborik era berean gizarte kohesionatua ez denik.

Lehenbiziko artikularen egileak Elsa Santamaría López eta Xavier Orteu Guiu dira, eta enplegarritasunera soilik bideratutako enplegu-politika aktiboen gabeziak aztertu dituzte, politika horiek laneratzea, oro har, hobetu beharrean, askotan bazterketa, berdintasunik eza, babesgabetasuna eta prekarietatea

eragiten baitute. Ondorio anker horiek eragozte aldera, egileek hurbilketa konplexuago bat proposatzen dute, zehazki, enplegu-politika aktiboei gaur egun apenas kontuan hartzen diren ikuspegiak gehitzen dien hurbilketa. Ikuspegi horiek dira, besteak beste, kide izatearen sentimendua sendotzea, eta orientabideko zein prestakuntza soziolaboraleko prozesuetan parte hartzen duten pertsonentzako jardueren baliagarritasun soziala azpimarratzea.

Bigarren artikulua Francisco Javier Arrieta Idiakezek idatzi du, eta enpleguaren degradazioa argien azaltzen duen gaietako bat du aztergai: behin-behinekotasunaren gehiegizko erabilera kontratazio-prozesuetan eta lan-antolaketan, administrazio publikoetan. Nahiz eta sektore publikoa, hasiera batean, prekaritatea dakarren malgutasunaren faktoreetatik at jarduten den (gailentzen den literaturaren arabera, hauek dira faktoreak: globalizazio eta deskontzentrazio produktiboa, eta soldataren balio-gutxitzearen bidezko nazioarteko lehia), egia da behin-behinekotasun handiko lan-sektorea dela. Artikuluak egoera hori zerk eragiten duen azaltzea du xede, bai eta gehiegizko behin-behinekotasuna mugatu dezaketen mekanismo legalak badauden ala ez azaltzea ere.

Hirugarren artikulua egilea Elisa Sierra Hernáiz da, eta Langileen Estatutuaren 50. artikulua (Langilearen borondatez kontratua amaitzea) aplikatzeak dakartzan arazoak aztertzen ditu, eta bereziki, langileak kontratua amai dadila eskatzeko bidezko arrazoa bere duintasuna gutxitzea izateak dakartzan arazoak. Arazo horiek zerikusia dute, funtsean, *langilearen duintasuna* kontzeptua juridikoki zehaztu gabe egotearekin, eta horrek berekin dakar salatutako kasu bakoitza banaka tratatzea, bai eta probaren zama salatzaileari egokitzea ere. Hala ere, egilearen ustez, egoera hori nabarmen aldatzen da duintasuna kaltetzeak oinarritzko eskubideei eragiten badie, hala nola jazarpen moraleko kasuetan edo enpresak kalte-ordainaren bermea betetzen ez duenean, hau da, lan-eskubideak baliatzeagatik edo eskatzeagatik langile orok errepresaliak ez jasateko duen eskubidea betetzen ez denean.

Laugarren artikuluan, Kamilla Teixeira Silva eta Ainhoa Saitua-Iribar egileek lana, bizitza pertsonala eta familia uztartzeko politikak aztertu dituzte, oso arazo delikatua bera, enpleguaren eta kohesio sozialaren arteko tentsioari buruzko hausnarketa egin dutela jakinik. Zehazki, 2014/95/EB Zuzentarauari jarraituz Espainiako lau enpresek jakitera eman zuten informazioa aztertu dute egileek. Zuzentaru horretan xedatutakoaren arabera, enpresa handiek derrigorrez aurkeztu behar dute alderdi sozialekin zerikusia duten politikak eta neurriak biltzen dituen informazio ez-finantzarioaren txostena.

María del Carmen López Anioitek gizarte-babesaren alorreko genero-desberdintasunaren gaia sakon aztertu du ale honen bosgarren artikuluan. Egileak adierazi du oraindik ere genero-desberdintasuneko egoerak daudela, eta hori hala dela nahiz eta Gizarte Segurantzako araudi ororen diseinuan eta aplikazioan genero-ikuspegia txertatzeko legezko betebeharrak duten. Ageriko desberdintasu-

nik eza bereziki iraingarria da erretiro-pentsioa jasotzeko aukeran, desberdintasun handiak baitaude gizonen eta emakumeen artean. Horren inguruan egileak adierazi du pentsio-sistemaren erreformatan behin eta berriz urratu dela tratua eta aukera-berdintasunaren printzipioa.

Francisco Vigo Serralvok, seigarren artikuluan, nabarmen aplikatzen den gai bat aztertu du: dieten kontzeptuan jasotako zenbatekoak soldataz kanpokoak direla frogatzeko modua, Gizarte Segurantzako kotizaziotik kendu ahal izateko. Administrazioarekiko auziei buruzko gure doktrina judizialean eztabaidatutako gaia da, eta oso bestelako ondorioak eragiten dizkie, lehenetsitako irizpidearen arabera, enpresei eta langileei.

LAN HARREMANAK aldizkariaren ale hau prestatzen ari ginela, ustekabean harrapatu gintuen COVID-19 gaitzaren pandemiak. Horrenbestez, jaso ditugun artikuluetako batzuk lan-alorrean eragin dituen ondorioei buruzkoak dira, oso bestelako planteamenduak oinarri hartuta.

Horren harira, Henar Álvarez Cuestaren zazpigarren artikulua oso aproposa da; hain zuzen ere, telelanari buruzko hausnarketa egin du. Egilearen uztez, alarma-egoeraren ondorengo konfinamenduari aurre egiteko neurri gisa ezarri zen telelana, eta aukera dago, oso handia, etorkizun hurbilean jardun normalizatu bilakatzeko. Urrutiko lanaren egungo erregulazioak dituen gabeziak aztertu ditu egileak, baita gabezia horiek telelangileak babesik gabe uzteko modu berri bihurtzea eragozteko modua ere.

Ildo beretik, Rubén López Fernándezek koronabirusaren inpaktuaren aurrean lan-arriskuen prebentziorako zerbitzuek zer-nolako jarduna izan duten aztertu du bere artikuluan. Horren inguruan ezarri diren arazuko neurri nagusiak berrikusi ditu, bai eta birusarekiko bereziki zaugarriak diren langileei emandako tratua ere.

Mirentxu Marín Malorena da bederatzigarren artikulua, eta COVID-19 gaitzarekin bateragarriak diren sintomak hautemateko lan-alorrean derrigorrean probak egitearekin zerikusia duten arazoetako batzuk landu ditu. Zehazki, zera aztertu du: lanean segurtasuna eta osasuna babeste aldera egindako proba horiek zenbateraino egin dezaketen talka intimitaterako eskubidearekin eta datu pertsonalen babesarekin.

Hurrengo artikuluan, ale honetako hamargarrenean, Emmanuel López Pérezek Mexikora garamatza. Hain zuzen ere, lan egiteko modu berriak, 4.0 industria esaten zaionarekin zerikusia duen gizarte-babesa (teknologia gailentzen den industria) eta haiek guztiak COVID-19 gaitzak eragindako pandemiarekin duten lotura ditu aztergai.

Eta azkenik, Álvaro San Martín Rodríguezen artikulua inoiz aztertu ez den arazo bati buruzkoa da: substantzia-abusua lan-alorrean eta haien ondorioak, bai

enpresetako lan-jardueran (absentismoa, gastu-medikuak haztea, produktibitateak behera egitea), bai langileengan (osasun-arazoak, zigorrak edo zehapenak, kaleratzeak eta desgaitasunak). Ameriketako Estatu Batuetan eta Espainian problematika horri aurre egitera bideratutako erregulazio-sistemak aztertu ditu egileak, eta, bere iritziz, ez dira behar bezalako kudeaketa bermatzea lortzen ari.

Leioa, 2020ko ekainaren 30a

Imanol Zubero Beaskoetxea

Grupo de investigación CIVERSITY Ikerkuntza taldea
<http://civersity.net/>